

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozio-ereduak behar bezala funtziona dezan, hainbat funtsezko baliabide behar ditugu. Baliabide horiek dira gure gimnasio eramangarria diseinatu, ekoitzi eta merkatura eramatea posible egiten dutenak, eta produktuen kalitatea eta bezeroei eskaintzen diegun balioa bermatzen dituztenak.

Lehenik eta behin, funtsezkoak dira baliabide fisikoak, horien artean nabarmentzen da gimnasioaren diseinua, espazio txikietara egokitzen dena eta estetikoki funtzionala eta erakargarria dena. Nahia izango da horren ardura hartuko duena. Gainera, publizitatea zabaltzeko, saltzeko eta komunikatzeko trebetasuna duen pertsona da, hortaz jendearekin komunikatzeko erraztasuna eta saltzeko abilezia du, beraz bera izango da arlo honen arduraduna.



Honez gain, biltegi bat izango dugu, gure makinak bertan sortzeko eta gordetzeko. Biltegia Urretxuko industria aldean egongo da kokatuta, eta nahiko handia izango da. Makinak bideratu eta haiek segurtasunez gorde ahal izatea ezinbestekoa izango da gure jardueran. Bestetik, bulego txiki bat ere beharko dugu. Elkarrekin jarri dugun bezala Uggasa izango da hori eskeiniko diguna. Prezioa merkea izango da eta tokia oso egokia da, beharrezko baliabide guztiak bertan egongo baitira: komunikatzeko tresnak, arazoei aurre egiteko baliabideak, eta bezeroekin harremanetan jartzeko espazioa. Horrela, eguneroko lanak egiteko tokia izango dugu.



Ekoizpen-prozesurako beharrezkoak diren kanpoko fabrikatzaile espezializatuak ere nahitaezkoak dira, gure produktuen kalitateari garrantzi handia ematen baitiogu. Mikeli teknologiaren mundua betidanik gustatu zaio eta gainera abila da horrelako tresnekin. Gainera, kontu handiz ibiltzen den mutikoa da beraz, kanpoko fabrikatzaileez gain Mikelek ere gimnasioa sortzen lagunduko du.

Ikerrek langileen arduraduna izateko hainbat gaitasun ditu, adibidez, pertsona antolatua da eta pazientzia asko du, beti izan du gustuko talde bat aurrera eramatea eta trebetasuna du jendearekin komunikatzeko, hortaz esparru hau bere esku geldituko da.

Hasierako finantzaketa lortzeko, mailegu bat eskatu beharko dugu Laboral Kutxa bankuan. Diru laguntza horrek gure proiektua aurrera eramateko beharrezko baliabideak eskuratzea ahalbidetuko du. Horrez gain, gure poltsikotik ere dirua jarriko dugu, inbertsioak egiteko eta lehenengo gastuak estaltzeko.

Ondorioz, funtsezko baliabide hauek guztiak behar bezala antolatzea eta kudeatzea ezinbestekoa izango da gure negozioaren jarduera egokia ziurtatzeko. Baliabide horiek modu egokian erabiliz, gure gimnasio eramangarrien ekoizpena eta banaketa modu eraginkorrean antolatu ahal izango ditugu, eta bezeroei kalitatezko produktu bat eskaintzea posible izango da.